

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko abenduaren 12an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

6357

249/2006 DEKRETUA, azaroaren 28koa. Honen bitartez, nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzua kudeatzeko ardura Itsasmendikoi SA sozietate publikoari esleitzen zaio.

Euskal Autonomia Estatutuak 16. artikuluan ezarzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena dela irakaskuntzaren arloa, oso-osorik, maila eta gradu guztietan. Horrez gain, betiere, bete beharrekoak dira Konstituzioko 27. artikulua, hura garatzen duten lege organikoak, Konstituzioko 149.1.30 artikuluan Estatuari egotzi zaizkion eskumenak eta hura betetzeko eta bermatzeko beharrezkoa den goi mailako ikuskatzea.

Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiz, autonomia erkidego honi eskualdatu zitzaizkion nabigazio eta arrantza irakaskuntzako baliabide materialak eta langileria. Eskualdatze horren baldintzak bi dekretutan daude jasota, hots, 1981eko abenduaren 29ko 3391/1981 Errege Dekretuan (1982ko urtarrilaren 28 BOE) eta 1982ko otsailaren 1eko 11/1982 Dekretuan (1982ko otsailaren 13ko EHAA, 19. zenbakia).

Egiteko horien artean dira honako hauek: nabigazio eta arrantzako irakaskuntza zentroetako langileen beharrezkoen buruzko aurreikuspenak prestatu eta onartzea; institutu politeknikoak, ikastetxeak eta eskolak sortu, eraldatu, handitu, sailkatu eta kentzea; ikasketa programak, planak eta orientazio pedagogikoak prestatu eta onartzea, bai bide arruntaz, bai esperimendu gisa; irakasleak eta irakasle ez diren langileak izendatu, lekualdatu, mailaz igo, hobetu eta mugitzea; eta nabi-

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de diciembre de 2006.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

6357

DECRETO 249/2006, de 28 de noviembre, por el que se adscribe la gestión del servicio de formación náutico-pesquera a la sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.».

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en su artículo 16, establece la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución, y Leyes orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30 de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

Por Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias se transpasaron a esta Comunidad los servicios, instituciones y los medios materiales y personales en materia de enseñanza náutico-pesqueras, en los términos recogidos en el Real Decreto 3391/1981, de 29 de diciembre (BOE de 28 de enero) y en el Decreto 11/1982, de 1 de febrero (BOPV 19, de 13 de febrero).

Entre estas funciones se encuentran la de la elaboración y aprobación de las previsiones de necesidades de personal de los centros docentes náutico-pesqueros; la creación, transformación, ampliación, clasificación y supresión de Institutos Politécnicos, Centros y Escuelas; la elaboración y aprobación de planes, programas de estudios y orientaciones pedagógicas, tanto en régimen ordinario como con carácter experimental; el nombramiento, traslado, promoción, perfeccionamiento y mo-

gazio eta arrantza arloko zentroen zuzenbideko eta administrazioko araubidea zehaztea.

Nekazaritzako, landa ingurune eta nabigazio nahiz arrantzako heziketa, Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetzari esleitutako eskumena da. Halaxe dago zehaztuta 290/2005 Dekretuko 8. artikuluan (2005eko urriaren 11ko Dekretua, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duena —2005eko urriaren 25eko EHAA, 203. zk.—). Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzan datza nabigazio eta arrantzako heziketa antolatu eta kudeatzeko eskumena, bai eta kirol nabigazioko titulu eta irakaskuntzen arloa antolatu eta kudeatzekoa ere (11. artikulua, o eta p letrak).

Egun, Pasaia Ikastetxe Politeknikoak ematen du nabigazio eta arrantzako heziketa. Ikastetxe hori Arrantza Eskola gisa hasi zen, 1940an. Hainbat aldaketaren ondoren, itsas eta arrantza lanbideetako tituluei dagozkien mota guztietako eskolak emateko eta azterketak egiteko gaitasun osoa duten itsas arrantzarako bost institutu politeknikoetatik bat da.

1981ean Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuetara igaro zenez geroztik, ikastetxearen antolakuntza egiturak ia ez du aldaketarik izan. Hala ere, nabigazio eta arrantzako heziketa egiten den inguruneak bilakaera etengabe eta sakona izan du. Horrenbestez, zaharkitua geratu da ikastetxea, eta ez du bere zerbitzuak egiteko egitura egokia.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, 2004an, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoko Zuzendaritzari eskatu zion azterlan bat egin zezala: garai berriei zegokien antolakuntza proposatuko zuen azterlana. Lan horrek, abiapuntu gisa, identifikatu egin zituen ikastetxearen kanpo bezeroak eta ikastetxe horrek izatez erantzun behar zien beharizanak. Hala, bada, antolakuntzaren taxuak ikastetxearen «izan beharra»ri erantzun behar zion, gaur egungo jardunbide eredu gora-behera.

Kanpo bezeroen beharizanak identifikatuta, beharizan horiek asetzeko egin beharko zituen egitekoak zehaztu ziren. Egindako analisiak agerian utzi zuen organigrama ofizialeko postuak zenbateraino zeuden aldentuta beharrezko jotzen ziren haietatik.

Funtsean, nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzuaren gaur egungo kudeaketaren ordez bestelakoak bilatzera bultzatzen duten arrazoiak hiru dira: kanpo bezeroek adierazitako beharizanei modu eraginkor eta lasterrean erantzutea; antolakuntza malgu izatea, batik bat langileria arloan, nabigazio eta arrantzako irakaskuntzaren dema berriei heldu ahal izateko moduan; eta arrantzaren oso mendearen aldetako garapena bultzatu beharra, itsasertzeko ekintza taldeak garatu eta prestatuz.

vilidad del personal docente y no docente, y la determinación del régimen jurídico y administrativo de los centros náutico-pesqueros.

La formación agraria, del medio rural y náutico-pesquera es una competencia atribuida a la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero, según el artículo 8 del Decreto 290/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación (BOPV 203, de 25 octubre), residenciando en la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, la atribución para ordenar y gestionar la formación náutico-pesquera, así como para llevar a cabo la ordenación y gestión en materia de titulaciones y enseñanzas náutico-recreativas (artículo 11, letras o y p).

Actualmente la formación náutica-pesquera se imparte por el Instituto Politécnico Marítimo Pesquero de Pasaia. Este instituto inició sus actividades como Escuela de Pesca en el año 1940 y después de sucesivas transformaciones, se convirtió en uno de los cinco Institutos Politécnicos Marítimo Pesqueros con capacidad plena para impartir toda clase de estudios y realizar los exámenes correspondientes a las titulaciones profesionales marítimo-pesqueras.

Desde su traspaso a la CAPV en 1981, la estructura organizativa del centro no ha sufrido modificaciones, a pesar de que el entorno en el que se desarrolla la formación náutico-pesquera ha experimentado una permanente y profunda evolución, que le han llevado a un desfase y a una estructura poco apropiada para la prestación de sus servicios.

El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación en el año 2004 solicitó a la Dirección de la Oficina de Mejora de la Administración la realización de un estudio en el que, ajustándose a la realidad de los nuevos tiempos, propusiera el correspondiente diseño organizativo. El trabajo realizado partió de la identificación de los clientes externos del Instituto y de las necesidades que se entendía debían ser satisfechas por él. Por tanto, el diseño organizativo debía responder al «deber ser» del Instituto, independientemente de su actual modelo de funcionamiento.

Identificadas las necesidades de los clientes externos se determinaron las funciones que debía de desarrollar para satisfacer esas necesidades. El análisis realizado puso de manifiesto el alejamiento existente entre los puestos del organigrama oficial y los considerados necesarios.

Básicamente las razones que animan a buscar otras alternativas a la actual gestión del servicio de formación náutico-pesquera son tres: la de responder eficazmente y con celeridad a las necesidades expresadas por los clientes externos; la de contar con una organización flexible, sobre todo en materia de personal, que pueda acometer los nuevos retos de la enseñanza náutico pesquera y la necesidad de impulsar el desarrollo de las zonas altamente dependientes de la pesca, mediante el desarrollo y formación de grupos de acción costeros.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari atxikia den Itsasmendikoi SA sozietate publikoak badu esperientzia heziketa lanetan. Hori kontuan izanik, orain Pasaia Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoak ematen duen heziketa sozietate horren esku uzteko aukera aztertu da.

Itsasmendikoi SA sozietate publikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa heziketa, sustapen eta garapenerako zentro integrala da, eta nekazaritzako heziketa zerbitzua kudeatzen du, 1997ko ekainaren 24ko 154/1997 Dekretuaz (1997 ekainaren 30eko EHAA, 123. zenbakia,) eginiko esleipenari jarraikiz. Funtsezko helburu hauek ditu: batetik, Euskadiko lehen sektorea modernizatu eta profesionalizatzea, belaunaldi berriek zaharrak ordezkatzeko bermatuz; eta, bestetik, lurralde oreka ezartzea, halako moduz non landatarren bizi baldintzak hiritarren pareko izan daitezkeen (biztanleak finkatzea eta kulturari nahiz tradizioei eustea bultzatzeko).

Itsasmendikoi SA sozietateak aldatu egin zuen lehenengo sozietate izena (Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua SA), eta sozietatearen xedea zabaldu. Aldakuntza horiek Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zituen, ohiko batzar unibertsal gisa eraturik, 2006ko azaroaren 14ko bilkuran. Horiek horrela, Itsasmendikoik bere gain har dezake nabigazio eta arrantzako heziketa, orain Pasaia Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoak egiten duena. Horrek baluke eragin onuragarri bat: izan ere, malgutasun handiagoa izango litzateke, aurrez aipatu ditugun beharrian eta demei aurre egiteko. Eta, gainera, horrela posible litzateke nekazaritzako eta nabigazio nahiz arrantzako heziketa gutzia antolakunde bakarrean biltzea, eta horrek badiu abantailak antolakuntzaren aldetik.

Pauso hori emanda, zortzigarren legegintzaldiko Eusko Jaurlaritza eratzeko koalizio hitzarmenean jasotako helburuetako batzuk lortu ahal izango liriateke: landa ingurunean biztanleria mantenduko dela bermatzea; landa eta arrantza inguruneak errespetuz eta modu sostengagarrian osotara garatzea, hango biztanleak hiritarrek gozatzen duten antzeko zerbitzu mailaz hornituz; eta sektore horietan belaunaldi berriak sartzea.

Horregatik guztiagatik, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak hala proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko azaroaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu eta gero,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– 1.– Nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzua kudeatzeko ardura Itsasmendikoi SA sozietate publikoari esleitzen zaio. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren esku geratzen dira 2005eko urriaren 11ko 290/2005 Dekretuaren bidez egotzi zaizkion nabigazio eta arrantzako heziketa antolatzeko egitekoak.

Teniendo en cuenta que la sociedad pública «Itsasmendikoi S.A.», adscrita al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación cuenta con experiencia en tareas formativas, se ha analizado la posibilidad de que la formación que ahora se imparte desde el Instituto Politécnico Marítimo-Pesquero de Pasaia se encomiende a la mencionada sociedad.

La sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.», es un centro integral para la formación, promoción y desarrollo rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y gestiona el servicio de formación agraria según adscripción realizada por Decreto 154/1997, de 24 de junio (BOPV n.º 123, de 30 de junio). Como objetivos fundamentales persigue, por un lado, la modernización y profesionalización del sector primario vasco garantizando el relevo generacional y, por otro, el establecimiento del equilibrio territorial, de forma que se puedan equiparar las condiciones de vida rural a la urbana, favoreciendo el asentamiento de la población y mantenimiento de la cultura y las tradiciones.

«Itsasmendikoi, S.A.», tras la modificación de su antigua denominación social (Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua S.A.) y la ampliación de su objeto social, (modificaciones adoptadas en Consejo de Gobierno, constituido en junta general ordinaria y universal en su sesión de 14 de noviembre de 2006), podrá asumir la formación náutico-pesquera ahora desarrollada por el Instituto Politécnico Marítimo-Pesquero de Pasaia. Esto tendría como efecto positivo el alcanzar un grado mayor de flexibilidad para poder hacer frente a las necesidades y retos indicados anteriormente y además posibilitaría concentrar toda la formación agraria y náutico-pesquera en una única organización, con las ventajas organizativas que esto supone.

Dando este paso se podría alcanzar parte de los objetivos recogidos en el Acuerdo de coalición para la formación del Gobierno Vasco de la VIII Legislatura, como son el de garantizar el mantenimiento de la población en el entorno rural, lograr el desarrollo integral sostenible y respetuoso de las zonas rurales y pesqueras dotando a sus ciudadanos de servicios análogos a los del mundo urbano, incorporando a las jóvenes generaciones en estos sectores.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 28 de noviembre de 2006,

DISPONGO:

Artículo 1.– 1.– Se adscribe la gestión del servicio de formación náutico-pesquera a la sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.», reservándose el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación el ejercicio de las funciones de ordenación de la formación náutico-pesquera que le atribuye el artículo 11 del Decreto 290/2005, de 11 de octubre.

2.– Nabigazio eta arrantzako heziketaren barruan, bi motatako irakaskuntzak daude sartuta. Batetik, itsas eta arrantza jardueren familiako heziketa zikloen irakaskuntzak, lanbide titulu hauek lortzeko beharrezkoak: itsas zabaleko patroï, itsasertzeko patroï, itsasontziko mekanikari nagusi eta itsasontziko mekaniko. Eta, bestetik, beste titulu hauek lortzeko irakaskuntzak: arrantza lanbideetako bestelako tituluak, urpekaritza profesionaleko tituluak, eta merkataritza nabigazioko tituluak eta lanbide espezializazioko ziurtagiriak (Sustapen Ministerioak 2002ko irailaren 4an onetsitako FOM/2296/2002 Aginduan zehaztuak).

2. artikulua.– 1.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, inbentario egokia egin eta gero, Itsasmendikoi SA sozietate publikoaren esku jarriko ditu (hark erabil ditzan, zerbitzua esleituta duen bitartean) dekretu honen eranskinean adierazitako ondasun higiezinak eta zerbitzuari atxikitako ondasun higigarriak.

2.– Haren esku jartze hori, bi entrega akta hauek izenpetuz formalizatuko da: «ondasun higiezinak entregatzeko akta» eta «ondasun higigarriak entregatzeko akta». Bi akta horiek Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak eta sozietatearen ordezkariak izenpetuko dituzte. Akta horiek ondasunen zerrenda zehatza edukiko dute, eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin koordinatuta egingo dira. Aktak izenpetutakoan, kopia bidaliko zaio Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean ager daitezten.

Ondasun horiek sozietatearen esku jartzeak ez dakar ondasunen titulartasuna edo kalifikazio juridikoa aldatzea.

3. artikulua.– 1.– Itsasmendikoi SA sozietate publikoaren betebeharrak izango da instalazioak, tresneriak eta ondasun higiezinak baldintza onetan mantentzea eta horretarako behar diren obrak egitea.

2.– Itsasmendikoi SA sozietateak behar bezala konserbatuko ditu ondasun eta elementu higigarriak. Galdu, hondatu edo zaharkitzen badira, haien orde besterik jarri beharko ditu.

3.– Administrazioarenak diren eta Itsasmendikoi SA sozietatearen esku jarri diren ondasunak zerbitzua egiteko beharrezko izateari edo horretarako erabiltzeari utziz gero, ondasun horien edukitza berreskuratu egingo du Administrazioak. Entrega hori, bi alderdiek izenpetutako aktaren bidez egingo da, edo Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren alde bakarreko aktaren bidez.

4. artikulua.– 1.– Itsasmendikoi SA sozietate publikoak, agindu zaizkion egitekoak egiteko beharrezko instalazioak sustatu eta eraiki ahal izango ditu, eta bere esku jarritako instalazioak egokitu ahal izango ditu.

2.– Instalazioen oinarriko egiturari edo instalazioen segurtasunari eragiten dioten obrak proiektuak, gaian

2.– La formación náutico-pesquera comprende tanto las enseñanzas correspondientes a los ciclos formativos de la familia de actividades marítimo-pesqueras necesarios para la adquisición de los títulos profesionales de patrón de altura, patrón de litoral, mecánico mayor naval y mecánico naval, como las enseñanzas conducentes a otros títulos profesionales de pesca, títulos de buceo profesional, y a los títulos de marina mercante y certificados de especialidad profesional previstos en la Orden del Ministerio de Fomento, FOM/2296/2002, de 4 septiembre.

Artículo 2.– 1.– El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, previa confección del correspondiente inventario, pondrá a disposición de la sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.» para su utilización y hasta tanto dure la adscripción del servicio, los bienes inmuebles que se relacionan en el anexo del presente Decreto y los bienes muebles adscritos al servicio.

2.– La puesta a disposición se formalizará mediante la suscripción de dos actas de entrega: el «acta de entrega de bienes inmuebles» y el «acta de entrega de bienes muebles» que serán suscritas por el titular de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y por el representante de la Sociedad. Las referidas actas contendrán la relación detallada de los bienes y se elaborarán en coordinación con la Dirección de Patrimonio y Contratación. Una vez firmadas las actas, se remitirá una copia a la Dirección de Patrimonio y Contratación para su constancia en el Inventario General de Bienes y Derechos.

La puesta a disposición no supone cambio de titularidad ni de calificación jurídica de los bienes.

Artículo 3.– 1.– La sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.» estará obligada a mantener las instalaciones, los equipos y los bienes inmuebles en perfectas condiciones y a realizar las obras que para ello sean necesarias.

2.– La sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.» conservará adecuadamente los bienes y elementos muebles y, en caso de pérdida, deterioro u obsolescencia, deberá reponer otros en su lugar.

3.– En el caso de que los bienes propiedad de la Administración y puestos a disposición de la sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.», devinieren innecesarios o dejaren de utilizarse para la prestación del servicio, la posesión de los mismos revertirá a la Administración, formalizándose su entrega mediante acta suscrita por ambas partes o por acta unilateral del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

Artículo 4.– 1.– La sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.», podrá promover y construir las instalaciones necesarias para el desarrollo de las funciones encomendadas así como adecuar las existentes puestas a su disposición.

2.– Los proyectos de obras que afecten a la estructura básica de las instalaciones o a la seguridad de las

aplikatzekoa den araudia hertsiki betez egingo dira, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak onartu beharko ditu. Gainera, aintzat hartu beharko dira Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak dituen eskumenak.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren jabari publikoko lurzorua gainean egindako eraikin berriak, Administrazio horren ondarean sartuko dira. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarearen barruan sartuko dira artikuluko honetako lehenengo idatz zatian adierazitako instalazioak eraikitze, egokitzeko, aldatzeko edo hobetzeko obrak, baldin obra horiek erkidego honen jabetzako ondasunen gainean egiten badira. Betiere, baimena izan beharko da, obrak mantentze edo konterbatze hutserako izan ezik. Obra horiek bukatutakoan, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak jakinarazi egingo dio Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, Ondasun eta Eskubi-deen Inbentario Orokorra eguneratzeko.

4.– Sozietatearen kontratazioa Herri Administrazioen Kontratuen Legeari jarraituz egingo da, lege horrek ezarritako kasu eta baldintzetan.

5. *artikulua.*– 1.– Sozietateak eskuratzen dituen eta zerbitzua egiteko beharrezko diren ondasun eta zerbitzuen edukitza eta zergapetze egintzetarako, beharrezkoa izango da alde aurretik Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren baimena izatea.

2.– Zerbitzuari atxikita edo zerbitzurako beharrezko diren eta sozietatearen titulartasunekoak diren ondasun eta eskubideak zehazte aldera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, alde aurretik sozietateari entzunda, ondasun eta eskubide horien zerrendak onartu ahalko ditu.

6. *artikulua.*– 1.– Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoaren nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzuari atxikita diren eta dekretu honek eragiten dien langile funtzionarioei, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko (6/1989 Legea, 1989ko uztailaren 6koa, zati batean 1997ko azaroaren 7ko 16/1997 Legeak eta 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatua) IV. kapituluko 3. sekzioan zehaztutako mekanismoak aplikatuko zaizkie.

2.– Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoaren nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzuari atxikita diren eta dekretu honek eragiten dien lan kontratuko langileei, 1/1995 Errege Dekretuko (1995eko martxoaren 24koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu berritua onartu duena) 44. artikuluan zehaztutakoa aplikatuko zaie.

7. *artikulua.*– 1.– Nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzuaren kudeaketa besterik gabe Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren eskuetara itzuliko da, baldin Itsasmendikoi SA sozietatea kaudimen ezean erortzen bada, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate publiko izateari uzten badio ere.

mismas, serán realizados con estricto cumplimiento de la normativa aplicable en la materia, y serán objeto de aprobación por la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, sin perjuicio de las competencias de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

3.– Las nuevas edificaciones levantadas sobre suelo de dominio público de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se integrarán en el patrimonio de ésta. También se integrarán en el patrimonio de la Comunidad Autónoma del País Vasco las obras para la construcción, adecuación, modificación o mejora de las instalaciones señaladas en el apartado primero del presente artículo, cuando se realicen sobre bienes de propiedad de esta Comunidad, requiriéndose en todo caso la autorización cuando no sean de mereo mantenimiento o conservación. Una vez finalizadas estas obras, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación lo comunicará a la Dirección de Patrimonio y Contratación para la actualización del Inventario General de Bienes y Derechos.

4.– La contratación de la sociedad se ajustará a la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en los casos y términos establecidos por ésta.

Artículo 5.– 1.– Los actos de disposición y gravamen de los bienes y derechos adquiridos por la Sociedad y necesarios para el desenvolvimiento del servicio, requerirán la previa autorización del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

2.– A efectos de la determinación de los bienes y derechos de titularidad de la Sociedad que se encuentren afectos o sean necesarios para el servicio, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, previa audiencia de la sociedad, podrá aprobar las relaciones de tales bienes y derechos.

Artículo 6.– 1.– Al personal funcionario adscrito al servicio de formación náutico-pesquera del Instituto Politécnico Marítimo-Pesquero de Pasaia afectado por este Decreto, le serán de aplicación los mecanismos legalmente previstos en la sección 3.ª del Capítulo IV de la Ley 6/1989, de Función Pública Vasca, de 6 de julio modificada parcialmente por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre, y por la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

2.– Al personal laboral adscrito al servicio de formación náutico-pesquera del Instituto Politécnico Marítimo-Pesquero de Pasaia afectado por el presente Decreto, le será de aplicación lo dispuesto en el artículo 44 del Real Decreto 1/1995, de 24 de marzo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

Artículo 7.– 1.– Revertirá automáticamente al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación la gestión del servicio de formación náutico-pesquera, cuando la sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.» incurra en insolvencia, así como en el caso de pérdida de su condición de Sociedad Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Zerbitzua sailaren eskuetara itzultzeak ondorio hauek ekarriko ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatearen esku jarritako ondasunak berreskuratzea.

b) Sailaren eskuetara itzultzeko unean, nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzuan lanean diharduten lan kontratuko langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan sartzea, indarrean den lan araudian ezarritako baldintzetan.

c) Sozietate publiko izateari uzten badio, Itsasmendikoi SA sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari entregatuko dizkio bere jabetzako ondasun eta zerbitzuak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak zerbitzurako beharrezko deritzenak.

d) Kaudimen eza gertatuz gero, haren jabetzakoak diren ondasun eta eskubideei dagokienez, konkurtso espedientean jarraitutako hitzarmena onartzeko epaian epaileak erabakitzen duenari men egin beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango da indarrean dekretu hau. Hala ere, nabigazio eta arrantzako heziketa zerbitzua kudeatzeko ardura Itsasmendikoi SA sozietate publikoari esleitzea, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko azaroaren 28an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

2.– La reversión del servicio producirá los siguientes efectos:

a) La recuperación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de los bienes puestos a disposición de la Sociedad.

b) La incorporación a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi del personal laboral que, en el momento de la reversión, se encuentre desempeñando funciones en el servicio de formación náutico-pesquera, en las condiciones establecidas en la normativa laboral en vigor.

c) En el caso de pérdida de su condición de sociedad pública, «Itsasmendikoi, S.A.» entregará a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aquellos bienes y derechos de su propiedad que el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación considere necesarios para el servicio.

d) En el caso de insolvencia se habrá de estar a lo decidido por el juez en la sentencia aprobatoria del convenio seguido en el expediente concursal, respecto a los bienes y derechos de su propiedad.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. No obstante lo anterior, la adscripción de la gestión del servicio de formación náutico-pesquera a la sociedad pública «Itsasmendikoi, S.A.» surtirá efecto desde el 1 de enero de 2007.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

AZAROAREN 28KO 249/2006 DEKRETUAREN ERANSKINA

PASAIKO ITSAS ARRANTZARAKO IKASTETXE POLITEKNIKOAREN ONDASUN HIGIEZINEN INBENTARIOA

Udalerrria	Deskribapena	Mota	Erabilera	Helbidea
Pasaia	Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoa	2200 (lurra)	Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoa	Marinelak, 2 (Pasai Antxo)
Pasaia	Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoa	2210 (eraikina)	Areto nagusia	Marinelak, 2 (Pasai Antxo)
Pasaia	Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoa	2210 (eraikina)	Lantegiak	Marinelak, 2 (Pasai Antxo)
Pasaia	Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoa	2210 (eraikina)	Ikastetxearen eraikina	Marinelak, 2 (Pasai Antxo)
Pasaia	Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoa	2210 (eraikina)	Zubi-dorrea	Marinelak, 2 (Pasai Antxo)
Pasaia	Ortze itsasontzia. Matrikula: EA-2421	Itsasontzia	Arrantza ikerketako itsasontzia	

ANEXO AL DECRETO 249/2006, DE 28 DE NOVIEMBRE

INVENTARIO DE BIENES INMUEBLES DEL INSTITUTO POLITECNICO MARITIMO PESQUERO DE PASAIA

<i>Municipio</i>	<i>Descripción</i>	<i>Clase</i>	<i>Destino</i>	<i>Dirección</i>
<i>Pasaia</i>	<i>Instituto Politécnico Marítimo Pesquero</i>	<i>2200 (Terreno)</i>	<i>Instituto Politécnico Marítimo Pesquero</i>	<i>Marinos, n.º 2 (Pasaia Ancho)</i>
<i>Pasaia</i>	<i>Instituto Politécnico Marítimo Pesquero</i>	<i>2210 (Edificio)</i>	<i>Aula Magna</i>	<i>Marinos, n.º 2 (Pasaia Ancho)</i>
<i>Pasaia</i>	<i>Instituto Politécnico Marítimo Pesquero</i>	<i>2210 (Edificio)</i>	<i>Talleres</i>	<i>Marinos, n.º 2 (Pasaia Ancho)</i>
<i>Pasaia</i>	<i>Instituto Politécnico Marítimo Pesquero</i>	<i>2210 (Edificio)</i>	<i>Edificio Escolar</i>	<i>Marinos, n.º 2 (Pasaia Ancho)</i>
<i>Pasaia</i>	<i>Instituto Politécnico Marítimo Pesquero</i>	<i>2210 (Edificio)</i>	<i>Torre - Puente</i>	<i>Marinos, n.º 2 (Pasaia Ancho)</i>
<i>Pasaia</i>	<i>Buque Ortze. Matricula EA-2421</i>	<i>Buque</i>	<i>Buque de Investigación Pesquera</i>	